

## KULTURKRITIKA

» LIBURUA

## Yin eta yang



Igor Estankona

Txina, azken laurogei urteotako mila milioi pertsonaren eguneroko mirakulua, Maorena eta Zhou Enlaiena, 7.000 kilometro egin zituen herriarena -80.000 atera ziren, 10.000 eskas iritsi-, Konfuzio eta Leninen eta lau mila urteko historiaren nahaste hori, Txina txikia eta erraldoia, gure garaiko transformaziorik handiena hartu du Beatriz Chivite Ezkietak (Iruñea, 1991) eta liburu bat atera zaio "umamia"-ren antzekoa. Ahaztu betiko mingotsa, gazia, garratza eta gozoa bakarrik dela mundua. Bosgarren zaporea dakar *Pekineko keak*.


*Pekineko kea* da ingurugiroaren degradazioa gordinen ageri den herrialdeko gandu industria, baina baita poesiaren berezko zetazko gortina argi-irazlea ere: "Limoi zati bat mozten/ gogoratzan dut,/ balkoian etzanda/ eskuan gintonik bat/ eta aurpegian liburu bat".

*Pekineko kea* ez da aurtan irakurri dudan tesi burutsuena, ez da azken aldian iritsi zaidan testimonio poetiko bihotz-urragarriena. *Pekineko kea* ez da gau osoan loa galarazi didan irakurketa joria. *Pekineko kea* da aspaldian irakurri dudan liburu fresko, iradokitzaile, interesgarriena. Eta badauka beste bertute bat oso karua dena: entrentenigarria da.

Beatriz Chivitek Txinan emandako ikasturtean idatzitako liburu honetan ez datoz hango kontuak bakarrik. Gainditu egiten ditu hangoa zein hemengoa, kontzeptu duda-mudazko horiek: "Mahuka gabeko kamixeta xuriko gizon zaharrak/ izerditan blai eguzkitan dauden sabelak,/ norantz begiratzen dute begi zorrotz hauek?/ Denboraren urratsetara/ eta eguerdiko siesteta-

***Pekineko kea***  
BEATRIZ CHIVITE

Pamiela (2017)



Beatriz Chivite Ezkietak idazlea  
(Iruñea, 1991).



ra?/ Houhai lakuko seietako eguzkira/ edo Txinako aldakuntzetara?/ Metamorfosi eta mutazio ulertezinetara".

Misterio hori da, mutazio ulertezinena, liburu hau berezi egiten duena. Paisaia begiesten duten begien paisaia, apenas iritsi ez den udaberri oraindik izoztua, amorrarazitakoaren etsipena, herrimina... dena kabitzen da, epigrama findu eta birfindu batean lez, Chiviteren poema batean. Zeren irudi unibertsalen poemategi honetan finak eta handiak aurkituko dituzu, biak batera. Gauza itzelek jendeen baitan sortzen duten dardara ia hautemanezina batetik, eta gauza txikien oihartzun biderkatua bestetik. Zintzo dedikatzen die idazleak liburu gai eternoei, edertasunari, amodioari, denboraren tatuajeei, baina gaien pisua igarri barik idazten du haien gainean, ontzia bezala igarotzen da, markarik utzi gabe, itsasoetatik. Bidaia fisikoa barne-bidaia bihurtua, *Pekineko kea* ez da poesia, ezpada bizitza poetizatua. ■